

## Antxiñako fotografixak



## Gure Txoko alkartiak 75 urte

**A**urtengo udabarrizan bete ditu hiru mende-laurden **Patrue kaleko** alkarte ezagunak. Sortu zanian, 1935ko maiatzaren 23an, kale hori **Moiua** moduan ezaguketan zan; gerra ostian **Mola** jeneralaren izena ezarri otsain kaliari; eta Reyes Korkostegiren alkatezaiaren azkenengo urtietan antxiñako izendapen popularra berreskuratu eben, hau da, Patrue kale. Alkarte politikak (karlista, nazionalista eta errepublikanuenak) alde batera jareta eta gaur egunian geraketan diranen artian, Oñatiko hirugarren soziedadia da **Gure Txoko**: lehenengua **Txantxiku Txoko** izan zan gure herrixan denbora-pasarako, gastronomiarako eta kulturarako alkartien artian (1927) eta **Zubillaga** auzokua bigarrena (1930). Egixa da egon zirala urte hareittan kirol eta arrantza-kazarako beste alkartu batzuk be, baiña euren lokal barik.

1935eko maiatzian Gipuzkoako gobernu zibillera araudixa onarketako bialdu zan eskabidia lau bazkide fundatzailek firmatu eben eta hurrengo hilleko aktan moldautako zuzendaritza-batzordia lau horreik eta beste bik osotutakua zan: **Lauriano Altuna**, lehendakari; **Gregorio Atxa**, lehendakariorde; **Joxe Astigarraga**, idazkari; **Hillarion Umerez**, diruzain; **Plazido Ugarte**, kide; eta **Txomin Galdos**, kide. Askoz gehixago etziran hasiera haretan eta gerora be ezta soziedade oso ugari izan: berrogetamar bazkideren bueltan ibilli izan da urte askuan, azkenaldi honetan zertxobait gehitu baldin bada be. Euskarazko izena euki arren, gerra ondoren ez euen aldatu biharrik izan, hori bai, "**Gure Txoko**" moduan jaixo zan alkartia "**Gure Choco**" bihurtu zan luzaruan aginttari politikuen papeletan.

Momentuz, eztoгу fundaziño-garaiko soziedadiaren fotografixarik lortu, baiña bai sasue haretan Patrue kaleko etxe horrek eukan itxuria erakusten doskun argazkixa, bere ertzian Araoz-Lazarraga familixiaren armarrri dotoria dakola. Bestia, barriz, Sevillan atarata dago Gure Txokoko fundatzaile batzuk urte haretantxe egin euen eskursiño batian. Ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue argazki kurioso honetan agerketan diranak: **Lauriano Altuna**, **Pedro Altuna**, **Hillarion Umerez** bolantian, **Joxe Astigarraga**, **Felix Altuna** eta **Gregorio Atxa**.

J. E.

Maiztegitarren etxe horren argazkixa Leonardo Zabaleta abade oñatiarren papel zaharren artian topau geben aspaldi eta Luis Codina fotografuak ataratakua da. Fundatzaillien fotografixia Pilar Altunak eskuratu dosku. Argibidiak Pilar berari, Rafa Altuna, Ixiar Unamuno eta Anjel Mari Biaineri zor dostegu. Esker milla guztioi!